


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/10/15-29) Hurrengo saioa: (2019/11/12)	Auzolana	Urriaren 26ko auzolanaren zereginei errepassoa eman ondoren, talde bakoitzeko arduraduna izendatu da eta erosi beharreko materialaren zerrenda ere egin da. Lan batzuk burutu ahal izateko, aldez aurretik ikustea komeni dela baloratu da eta taldetxo bat aste honetan bertan geratu da urrats horiek emateko. Familietara banatu beharreko jakinarazpena prestatu da.	Beharrezkoak diren erosketak egin. Izenemateak kontabilizatu ondoren, Ostatuko Manuri adierazi.
	Izazpe eta Agrupación coral Sardinero	Urriaren 19an Alegiako elizan izango den kontzertuaren berri herritarrek izan dezaten eta bertaratzera anima daitezen, jakinarazpena prestatu da	
	Eskola	Ezkion dagoen eskolaren izen ofiziala Ezkio-Itsaso Herri Eskola da. Honek nahastea sortzen du sarri askotan. Horregatik eskolaren izena aldatzeko eskaera egin zen aurtengo ekainean.	Gaiari jarraipena egin
	Herri Batzarreko akta	Urriaren 27an Alegian ospatu zen Herri Batzarreko akta borobildu eta banaketa egiteko kopiak prestatu dira.	
	Jubilatuen eguna	Jubilatuen egunaren ospakizuneko egitaraua adostu da. Egun hau aprobetxatuko da urtetan Itsasoko apaiza izan den Ramon Elkorori agurra egiteko. Jakinarazpenaren kopiak ere egin dira.	Bazkarira joan ezin diren jubilatuentzat loteak prestatzea eta txistulari zein dantzariekin koordinatzea
	Euskara sustatzeko diru-laguntzak	Udaletik euskara sustatzeko diru-laguntzak eskaintzea planteatu da. Adibide gisara, web orriak, herritarren testigantzen jasotzea,... aipatzen dira. Diru-laguntzak bideratu ahal izateko bete beharreko baldintzak ere aipatzen dira: araututa egotea (proiektu bat aurkeztu behar izatea) eta diru kopuru bat aurrekontuetan aurreikustea.	Lanketarekin jarraituko da



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/10/22) Hurrengo saioa: 2019/11/05	Auzolana	Urriaren 26an izango den auzolaneko talde bakoitzak beharko dituen gutxi gorabeherako pertsona kopurua definitu da.	
	Alegiako Herri Batzarra	Urriak 27 Alegian izango den Herri Batzarreko jakinarazpena prestatu da.	

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena 2019/10/30 Hurrengo saioa: (2019/11/13)	Alegiako frontoiko argiteria	Aste honetan led-ak jarri dira argiteria guztia berriztuz. Pizteko pultsadoreari eman eta ½ h denboraz piztuta mantenduko da doan.	Ordenantzak berrikusi
	Alegiako saneamendu hoditeria	Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetakoek Errota eta Miranda etxeetako ur zikinak errepide erdian dagoen anulatutako hodi batera sartu dituzte. Ur Kontsortziokoak Apaiz etxeakoak nora doazen aztertzen ari dira, hauei ere irtenbide bat emateko.	Koordinazio lanetan jarraitu udaletik
	Udaletxeko obra	Azaroaren erdi alderako bukatuta izango da behin betiko proiektua eta aurrekontuak. Argi-indarra sortzeko plaka fotovoltaikoen instalakuntza teilatuko obrarekin bateratzea landu behar da. Energia sortuz berogailua elektrikoa jar liteke. Ganbarako zorua egurrezko tarima izatea aurreikusi da.	Argi indar tomak non jarri aztertu
	Auzolanean amaitu gabekoak	Talde bakoitzak zituen lanak amaitzeko, taldea bera antolatzea izango dela eraginkorra ikusi da: S Lorentzo bidean eserlekuei kaltzeak kendu, elizatariko ranparen jarraipena, sakristi azpikoa Narrasperekin hormigoitu, bide berdean 3 eserleku jarri, hesi zaharrak kentzen bukatu...	Seinalitika iristen denean kokatu